

NOTA LABURRAK

PAULO VI EGO-AMERIKA'N

galderak eta zalantzak



Indar berri batzuk astindurik daukate Ego-Amerika. Esmatzen dittoa herria. Azitakoan, zer izango da? Nazio-artean leku egokirik arkituko al du?

Oraingo egoera tristearen aldakuntza izerdliz eta nekez bakarrik, ala odolotan kutsuturik egingo ote da?

Hemendik ogei ta amar urtera izango diren 690 milioi hoiak, gaurko esturktura ta erakunde berak ikusiko al dituzte?

Aita Santuak ausarditsu salatu ditu gaurko esturkturen bidegabekeriak. Baiña beharrezkoa dan erreboluzio hori, gogorkeriz, biolentziz, ez da azkarrago burutuko. «Zuen itxaropenik ez jar gogorkerian. Biolentziak, Kristautasunaren kontrakoa izanez gainera, zuen etorkizunaren hobeagotzea berandutu besterik ez du egingo».

Baiña, aberatsak eta herrietako zuzendariak erreforma gogorrak egin beharrean daude. Bestela, Historian zehar gertatu dana bera etorriko da; po-break eta zapalduak beren eskubideak indarka lortzea, lehenik gutxi ziran aberatsak garaiz eta arrazoiz jokatu etzutelako, gizarte osoaren onerako.

Eleizak, apaizek, eta kristauak, hortan ekin behar dute: herriaren mifiak eta prolemak bizi, sufritzen duten guztien biotza izan. Kristauen buruak, kapitalistenak eta pobreenak, egian, elkar-maitasunean, ezi; elkarren eskubideak errespetatzen erakutsi. Lurra arrotu ta lendu, ahalik eta laisterren justizian ta askatasunean oifarritutako gizarte berriaren landarea sor eta auzi dedin.

Ego-Amerika'ko Eleizak, eta Eleizatik kanpokoek, gallenduko ote dute krisis ikaragarri hori?

Herrien zuzendariak, intelektualek eta haundizkiek pentsatuko ote dituzte, pertsona guziren eskubideak defenditzen eta errespetatzen dituzten erreforma eta erreboluzio hori?

Eta ondo burututako programa hoiak egia ta errealtatea bihurtuko al dituzte?

Hala biz.

M. P.